

IRUDIKAREN 2022KO EDIZIOKO EGONALDIETARAKO DEIALDIA

Irudika Egoitzen Programak, nazioarteko sormen artistikoa eta truke kulturala sustatzeko asmoz, nazioarteko ilustratzaile bat eta lurralde nazionalako animatzaile bat hartzen ditu bere baitan, Bilbaoarte Fundazioaren, Cité de la Bande Dessinée et de L'image d'Angoulême-ko Maison des Auteurs-en sorkuntza espazioetan eta baita Guadalajarako Casa Editora eta Mexikoko La Casa del Autor de Zapopan argitaletxeek ere, proiektu artistiko propioa garatzeko eta Irudika Nazioarteko Jaialdiaren 2023ko edizioko irudia sortzeko. Egonaldi artistikoari buru emateko, emaitza horiek Gasteizen erakutsiko dira.

BI KATEGORIA: ILUSTRAZIOA eta ANIMAZIOA 2023

Deialdia 2022ko ABUZTUAREN 25etik (OSTEGUNA) 2022ko IRAILAREN 25era (IGANDEA), 23: 59ak arte.

EGUTEGIA

Egonaldiaren egutegia martxoaren 1etik maiatzaren 13ra izango da, eta otsailaren 28an Gasteizko ZAS Kultur Gunean aurkeztea aurreikusten da. Egonaldia *Maison des Auteurs*, *Angoulême*, *La Casa del Autor de Zapopan*, Guadalajara, Mexikon eta Bilbaoarte Fundazioan egingo da. Egonaldia amaitzeko Gasteizen erakusketa inauguratuko da non urte horretako kartela aurkeztuko da.

EGONALDIEN FASEAK:

Hautatuak etapa eta toki desberdinetan egingo du bere egonaldia:

AURKEZPENA. 2023ko otsailaren 28a, asteartea - 18:00etan.

Hitzaldia ZAS Kultur Gunean - Vitoria Gasteiz.

1. FASEA, martxoaren 1etik 31ra. ANGULEMA - Maison des Auteurs.

Irudiak sortzeko prozesua /kartela eta proiektu pertsonalak garatzeko prozesua.

2. FASEA: apirilaren 1etik 30era. GUADALAJARA eta ZAPOPAN - Egilearen Etxea - Impronta Casa Editora.

Azken obra garatzeko eta ekoizteko prozesua.

3. FASEA BILBO- maiatzaren 1etik 12ra - Bilbaoarte Fundazioa.

Instalaziorako piezak eta azken arteak ekoiztea

4. FASEA 2023aren maiatzak 13 – Erakusketaren inaugurazioa VITORIA-GASTEIZen.

ILUSTRAZIOAREN ARLOKO PROFESIONALENTZAKO EGONALDIA (MUNDU MAILAKOA)

Irudikak ilustrazioko profesionalentzako deialdi hau plazaratu du **Vital Fundazioaren** babesarekin eta lankidetzan arituz **BilbaoArte Fundazioarekin, Angoulême-ko Cité Internationale Bande Dessinée et de l'Image-rekin, Guadalajarako Jaurlaritzarekin** (Mexiko), **Guadalajara Capital Mundial del Libro - Cultura Guadalajara** eta **Zapopaneko Egilearen Etxearekin** (Mexiko).

HELBURUA.

Egonaldi honen helburua da lankidetzaren sareak sortzea, sortzaileen mugikortasuna sustatzea, sormen arloko produkzioa bultzatzea eta estatuko eta atzerriko kultur erakundeen arteko loturak sendotzea.

Orobat bilatzen du ilustrazioaren arloko sorkuntza sustatzea. Horretarako, aukeratua suertatzen den munduko edozein herrialdetako egoiliarrek ilustrazioko proiektu pertsonal bat egin behar du, eta baita ere IRUDIKAREN 2023ko edizioko kartela, elementu grafikoak eta flyer-ak. Elementu horiek kartelaren zatiak izan daitezke. Diseinu taldeak jarraibide batzuk emango ditu egonaldia hasi baino lehen.

ANIMAZIOAREN ARLOKO PROFESIONALENTZAKO EGONALDIA (LURRALDE MAILAKOA)

Irudikak animazioko profesionalentzako deialdi hau plazaratu du **Acción Cultural Española (AC/E)** eta **Vital Fundazioaren** babesarekin eta lankidetzan arituz **BilbaoArte Fundazioarekin, Angoulême-ko Cité Internationale Bande Dessinée et de l'Image-rekin, Guadalajarako Jaurlaritzarekin** (Mexiko), **Guadalajara Capital Mundial del Libro - Cultura Guadalajara** eta **Zapopaneko Egilearen Etxearekin** (Mexiko). Deialdi hau Espainiako nazionalitatea edo Espainian jaio edo erroldatuta dauden legezko egoitza egiaztatua duten animazioko profesionalen zuzendutako dago.

HELBURUA

Egonaldi honen helburua da lankidetzaren sareak sortzea, sortzaileen mugikortasuna sustatzea, sormen arloko produkzioa bultzatzea eta Espainiako eta atzerriko kultur erakundeen arteko loturak sendotzea. Egonaldiak helburutzat du animazio grafikoaren arloko sorkuntza sustatzea. Horretarako, hautatutako egoiliarrek animaziozko proiektu pertsonal bat garatu behar du, 20-60 segundo arteko gortina bat, bideo profesional hau erabiliko da Irudika 2023 Jaialdian.

EGONALDIRAKO HAUTAGAI IZATEKO BALDINTZAK.

Deialdian parte hartu ahal izango dute jarduteko gaitasuna duten pertsona fisikoek, baldin eta 18 urte baino gehiago badituzte. Hautagai bat egoiliar izateko aukeratzen bada, animazio-kategoriarako, Espainiako nazionalitatea edo Espainian legezko bizilekua dutela egiaztatu beharko du. Aldi berean, bai animazio eta ilustrazio egoilarrak, frogatu beharko dute badutuela Espainiako eta Europako osasun txartelak edo aseguru pribatu bat, egonaldiak dirauen artean gerta litezkeen gorabehera medikoei erantzuteko. Hegan egiteko antígeno/PCR probak, bisa-gestioak eta edo konfinamendu gastuak beraien diru poltsatik ordaindu beharko dute.

Egoilarrak konpromisoa hartuko du beharrian teknikoen zerrenda bat emateko antolakuntzari, gutxienez egonaldia hasi baino hilabete lehenago. Antolakuntzak bete ezin dituen beharrian guztiak sortzaileak berak bete beharko ditu, edo, bestela, egokitu egin beharko du bere teknika Maison des Auteurs d'Angoulême edo Bilbaoarte zentroek eskaintzen dituzten materialetara.

Sortzaileak hitz ematen du egonaldi artistikoaren etapa guztietako espazioetara joango dela eta toki horiek modu arduratsuan erabiliko dituela. Antolatzaileek ez dute erantzukizunik izango material teknologikoa edo egoiliarren jabetzako materialen bat hausten edo galtzen bada.

Aurreko puntuan azaldu bezala, aukeratua suertatzen den egoilarrak ilustrazioko proiektu pertsonal bat garatuko du eta IRUDIKA 2023ko kartela egingo du.

Prozesuan zehar, egoilarrak bere obraren sorkuntzari buruzko edukiak atxikiko ditu astero Irudikaren blogean.

Prozesua amaitzean erakusketa bat egingo da, non ilustratzaileak ikusgai jarriko baitu bere lan-prozesua eta Irudika 2023ko kartela/bideo laburra, egonaldian bertan sortua. Egoilarrak erakusketaren montaia eta desmuntatzeko lanetan parte hartuko du.

Ilustratzaileak konpromisoa hartzen du kartela psd 600dpi formatuan eta geruzaka entregatzeko, horrela posible izan dadin elementu grafikoak webean eta flyerretan erabiltzea. Animatzaileak konpromisoa hartzen du animazioa/gortinilla gordinen ematea, sustapenerako testuekin egokitzekeo

Era berean, profesionalak konpromisoa hartzen du etorkizunean proiektu hau aipatzerakoan, Irudikako egonaldi baten emaitza dela. Vital Fundazioaren, Acción Cultural Española (AC/E), La Maison des Auteurs eta la Cité Internationale de la bande dessinée et de l'image Angoulême-France, Bilbaoarte Fundazioa, Egileen etxea Zapopan (México) y Guadalajarako Jaurlaritzarekin (Mexiko), Guadalajara Capital Mundial del Libro - Cultura Guadalajara, baita Eusko Jaurlaritza, Espainiako Kultura eta Kirolaren Ministerioa, Arabako Foru Aldundia, Vitoria-Gasteiz Udaletxea eta Artium Museoa laguntzarekin.



ZUZKIDURA

Hautatutako egoiliarrek hauek jasoko ditu:

1. Diru-saria

Irudikak 2.450€ gordin eskainiko dizkio egoiliarrari, hiru fasetan ordainduta:

- 150€ gordin (% 15eko atxikipenarekin)
- 1.300 € bidaia-poltsa eta mantenu-dietetarako (BEZik eta atxikipenik gabe).

Kopuru horrekin ordaindu beharko ditu joan-etorriak (bizi den tokitik proiektua garatuko duen tokietara, Euskadi eta Angoulême artekoa), mantenua eta materiala beharrezkoa proiektua aurrera eramateko. Burdeos-Guadalajara eta Guadalajara-Bilbo hegaldiak eta ostatuak antolakuntzak finantzatzen ditu.

•1.000€ proiektua amaitzean, Ilustrazio Egonaldian Irudikaren 2023ko ediziorako sortutako kartelaren eskubideen lagapenagatik (% 19ko atxikipenarekin).

2. Ostatuak, lan-espazioak eta baliabide teknikoak:

VITORIA-GASTEIZ. ZAS KULTUR ESPAZIOA

Gasteizko hiriak, gure Irudika ekitaldiari harrera egiteaz gain, egoitza-faseak ireki eta ixten ditu, bertako laguntzaile banari esker, hala nola Vital Fundazioa eta Zas Kultur Gunea. 2023ko otsailaren 28an helduko dira Gasteizera, goizean, prentsari arreta eskaini ahal izateko. Goizean zehar mahai-inguru batean parte hartuko du Kike Infamerekin eta ANIMAZIO kategoriako irabazlearekin. Euskal Irudigileak elkarteak ZAS Kultur espazioan antolatutako solasaldien barruan kokatuko da mahai-inguru hori.

Egoiliarrek 150 € jasoko ditu, diru horrekin Gasteizen gau batez ostatu hartzeko eta, hala behar badu, euskal ilustratzaileen elkarteak eta Irudika jaialdiko lantaldeak kudeatuko dio erreserba. Egun horretan bertan 1.300 € jasoko ditu joan-etorri, mantenu eta material gastuetarako.

ANGOULÊME

Gasteiz eta Angoulême hirien arteko senidetzeari esker, komikiaren alorrean kultura-sustatzaile gisa aintzatespen luzea duen erakunde garrantzitsu honen laguntza dugu. Egonaldia, Maison des Auteurs d'Angoulême zentroan izango duten lan-espaziotik hurbil. Handik hurbil egoiliarrek bi logelako apartamendu bat izango du, Internetarako konexioarekin, beste egoiliar batekin partekatzeko (apartamenduari buruzko xehetasunak egonaldia baino hilabete lehenago jakinaraziko dira, baina ez da ziurtatzen wifi konexioa lan-eremuetatik kanpo).

MÉXICO

Deialdi honetarako berrikuntza nagusia Guadalajara (Mexiko) proiektuan sartzea da, Unescok 2022ko Liburuaren Munduko Hiriburu izendatu baitu, hautatutako proiektuak garatuko diren lekuetako bat. Lankidetzaz hori Euskal Irudigileak, FIL Guadalajara eta bertako kultur proiektuen (Impronta Casa Editora eta Petra Ediciones) arteko lankidetzaren ibilbide luzearen ondoren ere sortu egin da. Angoulemeko La Maison des Auteursekin senidetua dagoen Zapopaneko Egilearen Etxeak, bere aldetik, egileak bere instalazioetan hartzen ditu, Latinoamerikan gune bakarrar honen helburua narratiba grafikoaren, komikiaren, animazio digitalaren eta bideojokoen garapenaren arloetan obren sorkuntza sustatzea da.

Zapopanen, berriz, Zapopaneko MAZ Arte Museoarekin elkarlanean dihardugu, egoiliarrek beren proiektuak sortzeko estimulua jaso ahal izateko testuinguru bat sortuz. Proiektu horiek Bilbaoarte Fundaziora ekarriko dituzte berriro, Gasteizen gauzatu eta erakusteko, azken etapa amaituz.

Egonaldia eta lanerako espazioa Zapopaneko Egilearen Etxearen babestuta dago. Guadalajarako Jaurlaritzak ordainduko du mantenua, hasierako zenbatekoaren barruan, bai eta Frantzia-Mexiko-Espainia lekualdatzea ere.

Gainera, Inpronta Casa Editoraren instalazioak erabili ahal izango dituzte sortutako material grafikoa erreproduzitzeko probak egiteko.

BILBAO

Bilbaoarte Fundazioa sormen artistikorako gune bat da, grabatuen, eskulturen eta abarren tailerreko maisuak dituena. Bertan, instalazioak erabiltzeko aukera ematen digute, amaierako erakusketan erakutsi beharreko azken euskarri eta arteak sortzeko.

Egoiliarrek bi logaleko apartamentu bat partekatuko du beste egoiliar batekin.

Internetarako konexioa izango dute eta IRUDIKAK ordainduko du. Apartamentuari buruzko xehetasunak egonaldia baino hilabete lehenago jakinaraziko dira. Ez da Interneteko konexioa ziurtatzen lantokitik kanpo

Lan-espazioa: BILBAOARTE FUNDAZIOA, zeina lanerako erabili ahal izango baitute astelehenetik ostiralera, goizeko 09:00etatik gaueko 21:00etara. Espazio horretan hainbat tailerretako (medialab, teknologia berriak, lana eta eskultura) teknikarien laguntza izango dute eta areto/estudio bat erabili ahal izango dute beste profesional batzuekin lan egiteko.

BilbaoArte Fundazioan aholkularitza jasoko dute azken erakusketan euren obra instalatzen laguntzeko. Gainera, inprimaketa, plotter eta serigrafia espazioak erabili ahal izango dituzte, besteak beste.

Azken erakusketan, ilustratzaileak egonaldian egin duen lana aurkeztuko du eta sorkuntza-prozesuko materialak (zirriborroak, e.a.) erakutsiko ditu.

NOLA PARTE HARTU?

ILUSTRAZIO-DEIALDIAREN BALDINTZAK

Laguntza jaso ahal izateko, hautagaiek hauxe aurkeztu behar dute:

- Parte hartzeko eskabidea, beteta.
- Curriculum vitae, gehi hiru ilustrazio egilearen lanaren adierazgarri
- Egonaldian landuko den gortinaren proiektuaren azalpena, gehienez 10.000 karakterekoa: nola egingo den, gaia eta zein teknika erabiliko diren. Marrazki, zirriborro eta diseinuak ere aurkeztu daitezke.
- Motibazioak azaltzeko gutun bat.
- Zinpeko aitortpena, hautagaia aurkeztutako lanen egile bakarra dela adieraziz.

Interesatuak hautagaitza bidali beharko dute residencias@irudika.eus posta elektronikora, gaian hitz hauek jarrita: **Irudika 2023 Ilustrazio Egoitza**

ANIMAZIO-DEIALDIAREN BALDINTZAK

Laguntza jaso ahal izateko, hautagaiek hauxe aurkeztu behar dute:

- Parte hartzeko eskabidea, beteta.
- Curriculum vitae-a, 2018tik 2022era bitartean eginiko lanik esanguratsuenetako batzuk atxikita. Lanek gutxienez 30 segundo eta gehienez 10 minutu izango dituzte, mp4 formatuan aurkeztu beharko dira eta gehienez 100 Mb izan ditzakete.
- Egonaldian landuko den gortinaren proiektuaren azalpena, gehienez 10.000 karakterekoa: nola egingo den, gaia eta zein teknika erabiliko diren. Marrazki, zirriborro eta diseinuak ere aurkeztu daitezke.
- Motibazioak azaltzeko gutun bat.
- Hautagaiaren NANaren, AIZaren, Pasaportearen edo Espainiako nazionalitatea edo legezko bizilekua egiaztatzen duen agiriaren kopia
- Zinpeko aitortpena, hautagaia aurkeztutako lanen egile bakarra dela adieraziz.

Interesatuak hautagaitza bidali beharko dute residencias@irudika.eus posta elektronikora, gaian hitz hauek jarrita: **Irudika 2023 Animazio Egonaldia**, gaian hitz hauek jarrita: **Irudika 2023 animazioa egoitza**

HAUTAKETA

Irudikak deitutako epaimahai batek aztertuko ditu hautagaitza guztiak eta azken hautagaia aukeratuko du, egonaldiaren baldintzak zuzenean formalizatuko dituelarik hautatuarekin. Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da.

Balorazio Batzordeak egonaldia eman gabe utzi ahal izango du, baldin eta aurkeztutako lanek ez badute behar beste meritua.

Amaierako erabakia www.irudika.eus web orrian argitaratuko da, eta onuradunei jakinaraziko zaie emandako helbidean.

Hautagaitzak bidaltzeko epea: abuztuaren 25etik urriaren 15eko 23:59ra arte.

Ez da espedienterik onartuko une horretatik aurrera.

EPAIMAHAIAREN ERABAKIA

Bi deialdietako irabazleen azken erabakia Irudikaren seigarren edizioan argitaratuko da, Gasteizko Artium Museoan, 2022ko urriaren 1ean, larunbata. Epaimahaien bilera fisikoa 2022ko irailaren 30ean, ostirala, izango da.

DEIALDIAREN BALDINTZAK

1.Jabetza intelektualak.

Parte-hartzaileek aitortzen dute aurkezten dituzten lanak orijinalak eta eurek eginak direla, eta bermatzen dute badituztela lan horien gaineko jabetza intelektualeko eskubide guztiak. Zentzu horretan, bermatzen dute antolatzaileek arazo gabe erabil ditzaketela eta ez dietela leporatuko berme hori ez betetzeak zuzenean edo zeharka eragin ditzakeen kalteen erantzukizunik. Hautatuak espresuki baimentzen ditu antolatzaileak bere izena erabil dezaten egoki deritzen eran deialdi honen helburuetarako.

2.Datuen babesa.

Parte-hartzaileek onartzen dute deialdi honen bidez emandako datu pertsonalak antolatzaileen titulartasuneko datu pertsonalen fitxategietan (lehiaketetan, kontratazioan eta fakturazioan parte hartzen dutenak) erabili ahal izango direla, deialdi hau kudeatu ahal izateko. Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta horien aurka egiteko eskubideak erabili ahal izango dira EUSKAL IRUDIGILEAK – Asociación PROFESIONAL DE ILUSTRADORAS/ES DE EUSKADI 10038-48005 posta-kutxara joz. Bilbo edo info@euskalirudigileak.com helbide elektronikoa.

3.Parte-hartzaileen irudi eskubideak.

Parte-hartzaileek jakin behar dute agertu daitezkeela egonaldiak dirauen bitartean Areto barruan ateratako irudietan (argazkiak, bideoak, e.a.), informazio edo sustapen helburuekin zabaltzeko, eta baimena ematen dute erabilpen horretarako.

4.Oinarriak onartzea.

Parte-hartzaileek oinarri hauek onartzen dituzte deialdira aurkezte hutsagatik

5.Egonaldiak dirauen bitartean garatutako jardueraren zabalkundea.

Onuradunak honako hau aipatzeko konpromisoa hartzen du: aurkeztutako obraren zati bat Irudikak, Fundación Vital Fundazioaren eta Espainiako Kultur Ekintzaren laguntzarekin, 2023an deitutako egoitzan gauzatu zela, obra gozatu ondoren obra zabaltzeko eta/edo editatzeko egiten diren ekintza guztietan. Era berean, honako hauek aipatuko dira: Fundación BilbaoArte Fundazioa eta Cité Internationale de la Bande Dessinée et de l'Image de Angoulême, Guadalajarako Jaurlaritzarekin (Mexiko), Guadalajara Capital Mundial del Libro - Cultura Guadalajara eta La Casa del Autor de Zapopan eta beste edozein erakunde laguntzaile.

Xehetasun gehiago behar baduzu, idatzi helbide honetara: residencias@irudika.eus

**ILUSTRAZIO
EGONALDIA
IRUDIKA 2023
PARTE HARTZEKO ESKAERA**

Izen Abizenak:

NAN:

Telefonoa:

Emaila:

Jaioterra:

Herria:

Herrialdea:

Bizilekua:

Helbidea:

Herria:

Parte hartzeko eskabide honekin batera, honako hauek aurkeztu behar dira:

- Curriculum vitae, gehi hiru ilustrazio egilearen lanaren adierazgarri
- Nortasun-agiriaren edo pasaportearen kopia.
- Dossiera (2 eta 5 orrialde artean) Egoitzan landuko den proiektuaren deskribapena, gehienez 10.000 karakterekoa. Bertan azalduko da nola egin nahi den, zer gai erabiliko diren eta zer teknika erabiliko diren. Era berean, marrazkiak, zirriborroak edo diseinuak ere erabil daitezke.
- Motibazioak azaltzeko gutun bat.
- Zinpeko aitortpena, hautagaia aurkeztutako lanen egile bakarra dela adieraziz. Interesatuak hautagaitza irailaren 25eko 23: 59a baino lehen bidali beharko dute residencias@irudika.eus posta elektronikora, gaian hitz hauek jarrita: **Irudika 2023 Ilustrazio Egoitza**

Onartzen ditut erantsitako oinarrietan ezarritako baldintzak.

Sinadura:

_____ (e)n, _____ (e)ko _____ aren _____ (e)(a)n

ANIMAZIO EGONALDIA IRUDIKA 2023 PARTE HARTZEKO ESKAERA

Izen Abizenak:

NAN:

Telefonoa:

Emaila:

Jaioterria:

Herria:

Herrialdea:

Bizilekua:

Helbidea:

Herria:

Parte hartzeko eskabide honekin batera, honako hauek aurkeztu behar dira:

- NANaren edo pasaportearen kopia, Espainiako lurraldean jaiotakoentzat, eta/edo errolda-ziurtagiri eguneratua, deialdia kaleratu aurretik erregistratuta dagoen herrialdean bizi dela ziurtatzen duena.
- Curriculum vitae, 2018-2022 aldiaren egindako lan adierazgarrienetako batzuk erantsita, gutxienez 30 segundoko iraupeneko eta gehienez 10 minutuko mp4 formatuan eta gehienez 100 Mb-koa.
- Egonaldian landuko den gortinaren proiektuaren azalpena, gehienez 10.000 karakterekoa: nola egingo den, gaia eta zein teknika erabiliko diren. Marrazki, zirriborro eta diseinuak ere aurkeztu daitezke.
- Motibazioak azaltzeko gutun bat.
- Zinpeko aitortpena, hautagaia aurkeztutako lanen egile bakarra dela adieraziz. Interesatuek hautagaitza irailaren 25eko 23: 59a baino lehen bidali beharko dute residencias@irudika.eus posta elektronikora, gaian hitz hauek jarrita:

Irudika 2023 Animazio Egoitza

Onartzen ditut erantsitako oinarrietan ezarritako baldintzak.

Sinadura:

_____(e)n, _____(e)ko _____aren _____(e)(a)n